

GEUGAZ



Ondarroan, 2006-10-01

herrigintza eta emakumeak

editoriala KONPLIZE DITUT ETA...
iritzi artikulua GATAZKA ARMATUEI ETA
BAKEGINTZARI BEGIRADA FEMINISTA BAT
elkarrizketa
PATRICIA VERDES, PSIKOLOGOA
jolasa TRIBIAL FEMINISTA
agenda MAIATZA-EKAINA'2015

Emakumeon parte hartzea
bermatuko duen beharrezko
mekanismoak martxan jartzeko unea da

EDITORIALA



Ondarroako Udalaren Berdintasun Sailak argitaratua. *Testuen erabilera baimentzen dugu, baina iturria aipatu beharko duzu.*

Lege Gordailua: BI-1111-2014

Erredakzioa:

Graziana Xarra, Agurne Bikandi Aizpurua, Maravillas Lanberto, Julene Azpeitia, Rosa Baltar Cabo, Katalina de Erauso, Polixene Trabudua.

Koordinazioa:

Udal Berdintasun Saila

Maketazioa:

11barri/ Nekane Akarregi



ETXELILA

Emakumeen Topalekua

Artibai, 3 • 94 613 40 08

etxelila@ondarroakoudala.net

Jendaurreko ordutegia:

martitzenetik barikura,
16:30-20:30



ETXELILA
Emakumeen Topalekua



EMAKUMEEN
UDAL BERDINTASUN
KONTSEILUA



Ondarroako
Udalak

Konplize ditut eta...

Martxoaren 8aren harira, Uxue Alberdiren bertso batzuk ekarri nahi ditugu hona:

I
Emakume zuzenak,
okerrak, kirtenak,
moja txintxoak eta
zerrama irtenak,
itsusiak, politak,
atletak, herrenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

II
Langileak, alferreak,
lanik ez dutenak,
tuntunak, mediokreak,
klaseko lehenak,
ale desegokiak,
andre txit gorenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

III
Ama onak ta txarrak,
ama ez direnak,
lurrera jausi arte
mozkortzen onenak
ta umeen merienda
usaina dutenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

IV
Lotsatiak, ausartak
argalak, gizenak,
iletsuak, soil-soilak,
marimutilenak,
katemeak, gorilak
panterak, zezenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

V
Markesaren alabak,
neskame gizenak,
printzesak ta sorginak,
ogroak, sirenak,
Marituak, Bartolo
itxura dutenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

VI
Lehen munduko emeak,
kapitalistenak,
lur usaia daukaten
andre indigenak,
zuri, gorri, horiak,
beltzetan beltzenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

**Youtube-n idatzi «konplize ditut eta»,
eta bideoklipa ikus dezakezue (Amasa-Billabonako Udala).**

**Aldizkari hau zure etxe, bulego, lantoki, establezimentuan...
jaso nahi izanez gero, jarri gurekin kontaktuan.
Bestela herriko toki ezberdinetan aurkituko gaituzu!**

IZENA:

HELBIDEA:

POSTA ELEKTRONIKOA:



El Salvadorreko MUPI (la imagen)



El Salvadorreko MUPI (museo de la palabra)

Gatazka armatuei eta bakegintzari begirada feminista bat

• Irantzu Mendia Azkue
(EHUko irakaslea)

Guda eta bakearen inguruko ohiko irakurketa androzentriko, militarista eta estatuzentrikoak indarrez kritikatu eta oposatu dituztenen artean kokatzen da mugimendu feminista. Era berean, bortizkeria dinamikan genero faktorearen eragina azaltzen duen mugimendu nagusia da.

Feminismoak gatazketan emakumeen kontrako bortizkeria azalera ekarri eta salatu du, horren hedapena eta ondorio anitzak nabarmenduz. Baita ere, feminismoak sarkotasunez hausnartu du gudetan emakumeek soldadu moduan ejerzitoetan edota talde armatu ezberdinetan duten partaidetzaz. Horrekin,

emakumeei ustezko izaera baketsua egotzi eta bortizkeriaren erabileraren inguruko erabaki autonomoak hartzeko haien gaitasuna ukatu egiten duten begirada esentsialisten kontrako argudioak eskaini ditu.

Azkenik, emakumeek el-karrizketa eta negoziazioaren aldeko ekimenetan duten partaidetzaren inguruko ekarpen feministek historikoki ikustezin mantendu den haien bakegintzarako aktibismoa aldarrikatzen lagundu dute. Baita ere, bortizkeriaren kontrako borrokan emakumeek erakusten duten muga nazional eta politikoak gainditzeko haien ahalmena ere.

Azken honen inguruan esango nuke, emakumeen artean dauden ezberdintasun politiko, sozial edota etnikoen gainditze hori ez datorrela hainbeste emakume izatetik gatazkaren bizipen berdintsu bat izanagatik, baizik eta gatazka berari buruzko definizio edo interpretaziorako gutxienezko adostasun batzuetara ailegatzeko haien ahalmenagatik (honen eratorria, ondorioak edota konponketarako bideei buruz). Mota honetako akordio politikoak dira nire ustez emakumeen bakegintzarako esfortsu hitzartuak eusten dutenak; eta hauxe da, hain zuzen, emakumeok Euskal Herrian dugun erronka egungo abagunean.

Hitzaldia

Maiatzak 28/ 19:00etan/ Etxelilan
Emakumeak munduko gatazka armatu eta bake prozesuetan – Irantzu Mendia (EHUko irakaslea)



herrigintza eta emakumeak

Gaur egungo sistema politikoak, jardun politikorako bide legitimo bakartzat alderdi politikoak eta instituzioak ikusten baditu ere, jakin badakigu, bide havez gain, jardun "politikoa", mugimendu feministak urteen poderioz erakutsi bezala (Kate Millet: pertsonala politikoa da) egunero egiten dugula: espazio orotan, momentu guztietan, gure ideia, egintza eta gorputzekin egiten dugu.



H auteskundeak atarian ditugula, jo dezagun begiradaz politikaren jardun instituzionalera. Ordezkaritza sistemen baitan, lau urtetik behin bozken bitartez aukeratzen ditugun ordezkari politikoetan dago egun publiko denaren kudeaketa, boterea eta erabakiak hartzeko gaitasuna. Baina guztion beharren ordezkaritza, errealak al da gaur egun?

Askotan gertatzen den bezala, ordezkari-tzak jendartearen aurkitzen diren desorekak errepikatzen ditu bere jardunean: aurrez definitzen diren beharrak garrantzien arabera mailakatuz (direla migranteen beharrak, direla dibertsitate funtzionala bizi duten pertsonenak, direla emakumeenak eta abarrenak bigarren maila batean utziz). Ezin dugu albo batera utzi, parte hartzea (politikoa edo herri partaidetza) ahalbidetzen duen aukera berdintasun falta bat dagoela, eta honek, halabeharrez esaterako emakumeen beharrianen



ordezkaritza herrena daka-
rrela.

Ikus dezagun beraz errealita-
tean gutxiengo hauen ordezkari-
tza, emakumeon parte
hartze politiko (instituzionala)
datuetan: XX. mendean zehar
lortu dugu, bai bozka eskubi-
dea eta baita ordezkari politiko
gisa hautatuak izateko eskubi-
dea ere; bai, bai, XX men-
dean!

Honez gero, erabaki gune pu-
blikoetan emakumeon parte
hartzea urteekin handitu bada
ere, igoerak larriki motela iza-
ten jarraitzen du. Espainiar es-
tatuko parlamentuan soilik
%21,9a dira emakumeak;
mundu mailan 37 estatutan
emakumeen ordezkaritza po-
litikoak %10era ez dira iristen.

Euskal Autonomi Erkidegoko
datuen arabera, 2007an uda-
letxe orotako zinegotzien ar-
tean %35a ziren emakumeak,
eta udalen %19tan udal buru
ziren emakumeak (batez ere
biztanleria gutxiengoko herrie-
tan). Eta 2009 datuen arabera
parlamentarien %45,3 emaku-

meak ziren Euskal Autonomi
Erkidegoan (ezin ahaztu, zen-
baki hauen atzean "kuoten
legea" dagoela, eta lege hau
ezarrita egongo ez balitz?).

Desoreka hau txikiagotzeko bi-
deetarik bat, aipatutako gu-
txiengoan bizitzeko moduak
eta behar propioak errealki
eta garrantziaz kontutan har-
tzean aurki genezake. Beraz,
gutxiengo horiek jardun institu-
zionalean sartzeak aniztasu-
naren ordezkaritza errealer-
a hurbil gaitzake. Politika kon-
tuetan badakigu emakume
izatea ez dela erabateko ber-
mea, baina badu bere balioa.

Benetan ezinbestekoa dena
planteamendu feminista iza-
tea da, mugimendu erabat
demokratikoa, hainbat balore
defendatzen dituena: gizarte-
ongizatea eta gizarte-justizia,
herritarren lankidetzeta eta par-
taidetzeta, eta gizakien anizta-
sunarekiko errespetua.

Hau dela eta, emakumeon
parte hartzea bermatuko duen
beharrezko mekanismoak
martxan jartzeko unea da.

Esaterako, egun "bateragarri-
tasun" (kontziliazioa) bezala
ulertzen duguna gauzatu be-
harko litzateke (nozioa amata-
sunetik harago eramanez, bizi
proiektu guztia barne hartuz:
enplegua, militantzia, aisia,
edo bizitzaren beste edozein
eremu bateragarri izatea posi-
ble egingo lukeen sistema).
Bestelako eredu eta parte-har-
tze guneak eraiki behar geni-
tuzke ere, eta emakumeen
presentzia soiletik harago,
agenda politikoaren parte ga-
rrantzitsu bilakatu behar lukete
gutxiengo garenon beharri-
zak.

Herriaren garapen nahiz jar-
dun soziopolitiko, ekonomiko
eta kulturean gure beharri-
zan propioak, eragina, jar-
duna, eraldaketa gaitasuna,
bozka, ahotsa ... aintzakotzat
hartuak izan behar dira, sub-
jektu politiko gisa errekonozitu-
ak izan behar gara. Proposamen
zein erabaki gu-
neetan, HERRITAR GUZTIOK
izan behar dugulako parte
hartzeko aukera berdina eta
gure beharrianak erakusteko
aukera.



ABORTATZEKO ESKUBIDEAZ

• **Topatu.info**-tik

1985ekoa baino lege atzerakoiagoa onartu du PPK Espainiako kongresuan. Hauek izango dira abortatzeko baldintzak hemendik aurrera:

- Adingabeek gurasoen baimena beharko dute abortatzeko.
- Abortatzeko bi baldintza egongo dira: bortxaketa jasan izana edo emakumearen osasuna arriskuan egotea. Bortxaketa kasuan, 12 aste aurretik abortatu beharko da. Osasun arriskuak izateko baldintza berri, 1985ekoa baino murriztaileagoa izango da



epeei dagokionean; orain baldintza hori 22 astera arte soilik argudiatu ahal izango baita. Gainera, abortua egingo duen medikuarenaz gain, beste bi sendagileren baietza beharko da.

- Malformazioetan, bi medikuren baietza beharko da. Abortua egingo ez duten medikuak izango dira, eta zentro desberdinetakoak. Gainera, baieztatu beharko da malformazioagatik andreak kalte larria jasango duela.

Talde feministek emakumeen eskubideen aurkako eraso larritzat jo dute neurria, eta kalera ateratzera deitu dute, emakumeak beraien gorputzen jabe direla argudiatuz.

LIBURUAREN EGUNA IZAN DELA ETA...

Apirilak 23, liburuaren egunaren harira, proposamen batzuk:

• **Tractatus**

Jule Goikoetxea (Susa)

• **Zuri-beltzeko argazkiak**

Arantza Urretabizkaia (Pamiela)

• **Erresumaren ilusentia**

Mila Salterain (Txalaparta)

• **Mamuak**

Ana Urkiza (Elkar)

• **Beltzuria**

Ixiar Rozas (Pamiela)

• **Orube abandonatuak**

Garazi Kamio (Elkar)

• **Odol mamituak**

Alaine Agirre (Elkar)

• **Erraiak**

Danele Sarriugarte (Elkar)

• **Ez zen diruagatik**

Ana Jaka (Elkar)

• **Lasai, ez da ezer gertatzen**


Ana Malagon (Elkar)

• **Andraizea**

Irati Goikoetxea (Erein)

• **Biribilgune**

Katixa Dolhare(Elkar)



OLIBERTA

udi datorrela ta...



Gure
geneAlogia
feministak




euskal herriko bilgune feminista



GURE GENEALOGIA FEMINISTAK EGITASMOA MARTXAN DA

Gure Genealogia Feministak, egitasmoa emakumeen eta feministen ekarpenak argira ekarri nahi dituen proiektua da. Emagin elkarteak eta Euskal Herriko Bilgune Feministak elkarlanean egindako lana. Memoria kolektiiboan ez dira azarna feministak ageri. Ondorioz Euskal Herriko Mugimendu Feministaren lana, ahalegina eta jarduna ez da aitortua izan. Linterna, foku, mikrofono eta bolumen altuko bozgorailuak jarri ditugu feministon ahotan. Argi eman diegu, gertatutakoei, bizi eta sentitutako zapalkuntzei eta hauen aurrean feministek eragindako aldaketek. Badator Euskal Herriko talde eta aldarrikapen feminista nagusiak biltzen dituen euskarazko lehen liburua. Mugimendu feministak sortutako material grafikoarekin koloretan.

Etzelilan aurkeztuko da!
Ekainak 3, 19:00etan



TRIBIAL FEMINISTA MUGIKORRERAKO APLIKAZIO BERRIA: DOAKOA ETA EUSKARAZ!

Emakumeen Nazioarteko Egunaren testuinguruan gailu mugikorretarako **Tribial Feminista** aurkeztu dute emakumeak historian zehar bete duen paperari garrantzia emateko. **Smartphone eta tabletetarako joko da, doakoa eta euskaraz.**

Aplikazioak **Trivial** jokoa formatua dauka eta bere **helburua** da genero-parekidetasuna sustatzea, emakumeak historian zehar betetako paperari ikusgarritasuna ematen dioten galderen bitartez. IRONTEC enpresa izan da aplikazioa garatu duena. Udalek (Arrasateko, Ba-

sauriko, Ermuko, Ondarroako eta Zierbenako udalek), berriz, jokoa ereduak jarri dituzte. Egitasmoa Bizkaiko Foru Aldundiak eta Irontec-ek finantzatu dute.

Goiko argazkian, Tribal Feministaren aurkezpena (2015-03-06) Bilboko Azkue Fundazioaren egoitzan; tartean, Rakel Elu, Ondarroako udaleko zinegotzia.

Aplikazioa deskargatzeko, hemen:

Androiderako:

<http://bit.ly/tribial>

iPhone, iPad eta iPod Toucherako: Apple Store-n balidatzen ari dira.

Informazio gehiago

<http://www.irontec.com>



KORRIKAN IZAN GARA!

Argazkia: Nerea Bedialauneta
(Lea-Artibai eta Mutrikuko HItza)

**EUSK
AHAL
DUN!**

Patricia Verdes Gimenez • PSIKOLOGOA



Patricia Verdes Gimenez psikologoa da emakumeen osasunean espezializatua. Ikasturte honetan **Ezagutu zure gorputza, zaindu osasuna** ikastaroa eman du Etxelilan. Harremanetarako: cuerpoquesabe@yahoo .com

Norbere gorputza entzuteak zer esan nahi du? Entzuten ahal dugu?

Norbere gorputza entzutea, gauza askoren artean, norbere beharrianak eta osasunaren inguruko aztarnak ulertu ahal izatea eta aditzea esan nahi du. Norberarekiko dugun lotura prozesu iraunkorra da, gertatzen zaidanarekin eta behar dudanarekin. Zentsu honetan, beti emango da zerbait entzute honen inguruan, bestela ez ginateke biziko! Gosea dugunean ez badugu jaten, egarri garenena ez badugu edaten edota logura dugunean ez badugu lo egiten...

Modu batetan, norbera entzutea, organismoak unean duen jakituria ezagutzean datza, norbere zikloak eta prozesuak, minak eta plazerak... Norbere burua eza-gutzen dudala pentsatzean datza. Hau izango litzateke norbere zaintzaren lehen pausua.


«Emakumeen osasunaren aurka jasotzen ditugun mezuei (gehiegi pisatu, gaizki usaindu, hilerokoa=gaixotasuna...), garrantzia kendu behar diegu, mezu okerrak direlako»

Aldiz, pertsona gorputzaren seinale edo azterna hauek ez entzutea ohitu daiteke kanpoko presioen ondorioz. Horrela, gorputzak eskatzen dizkigun beharrianak alde batera uzten ditugu eta beste gauza batzuei ematen diegu garrantzia. Adibidez, beste pertsonak dituzten beharrianak aurre egitearren ez deskantsatzea; egoerarekin bukatzea gaizki ikusita dagoenez, sententzio txarrak sentiarazten edo ematen uztea; gosez geratzea edo gutxi jatea determinaturiko estetika ereduak lortu ahal izateko. Norbere burua ez entzutearen kanpo exijentziak askoz ere nabarmenagoak izan daitezke emakumeentzat sistema patriarkatuan. Entzute eta honek sortzen

duen zaintza gabe, emakumeok gaixotu egin gaitezke.

Osasun arretaren zati handi bat eredu maskulinoan oinarritzen dela dakigu... zer eragiten du honek gure bizitzan?

Beste eskala baten, eskolan giza gorputza ikasten genuenean, gorputz maskulino baten gainean marratzen genuen. Gure gorputzak, emakumeon gorputzak, ikusezin geratzen dira. Horrela ezin izan gara ezagutu, aipatu, gertatzen zitzaizkigun gauzak ulertu, norbere sententzioei autoritatea eman... eta ezta gure gorputz femeninoa bitiztea ospatu ere.



autosufizientea zarenik, baizik elkar hobeto zaintzeko laguntza behar dugula azpimarratuko digu.

Norbere ezagutza hirugarren pertsoneri ez jakinaraztea funtsezkoa dela uste dut; osasun profesionaleri, liburuak esaten dutenari edo auzokoak dionari.

Eredu biomediko patriarkalean ematen diren botere harremanetan mantentzen da zesio hau, gaur eguneko mediku kontsulta gehientsuenetan. Norbere ezagutza, norbere barruko gida, ez dela oso afinatua jakitun edo konturatzen bazara, ez ahalegindu beste gauza edo pertsona batzuen bitartez ordezkatzan, errepereratzan baizik. Eredugarria izango litzake osasun arloko profesionalak beraiei ezagutzen, gure ezagutza barneratuko baluke, eta ez alde batera utzi.

Guzti hau osasun arretara eramanez gero, emakume gorputzetan zehazki oinarritzen den ikerkuntzarik, arreta eta osasun politikarik oraindik ez dago. Osasunaren alorrean gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunik ez sortzeko eta emakumeen osasunean modu espezifikoan eragiten duten elementuetan arreta jartzeko baliabideak oso urriak dira. Honek gure osasun propioan eta zaintzako gaitasunetan kalte izugarria eragiten du.

Aipatzen dituzun "Norbere gorputzaren neurriko osasun praktikak" edo "gure osasun propioan ahaldundutzea" inguruan ..., eman ahal dizkiguzu gako batzuk?

Norberak norbere gorputzetik eta beste emakume batzuekin batera aurrera eraman ditzaketen gako batzuk ematen ahaleginduko naiz.

Norbere gorputzaren entzutea eta ezagutza berreskuratzen ahalegintzean oinarritzen da gakoetako bat. Pixkanaka-pixkanaka hasiz eta zerrek ongi egiten digun eta gaizki sentiarazten gaituzten egoeretan arreta jarri, eta horrela norbere jokabideetan aplikatzen joanez. Entzute honek ez du esan nahi


Beste osasun praktika garrantzitsu bat, beste emakume batzuekin biltzea da, non norbere egoeren jabe egiten, egiaztatzen, ... lagundu ahal diguten. Praktika hau, feminismoan espermentatua izan denean, emakumeen osasunean efektu onuragarriak sortu izan ditu. Beste gakoetako bat, emakumeen osasunaren aurka jasotzen ditugun mezuei, sistema patriarkalean finkaturik daudenei, garrantzia kentzea izango litzateke. Mezu hauek emakumeen gorputza okerra dela transmititzen digute. Adibidez, gehiegi pisatzen dugula, gaizki usaintzen dugula, hilerokoa bezalako prozesu osasungarriak gaixotasunak direla, edota dituen plazerak ez direla plazer etikoak, ...



Gomendatzen!

• **GURE GORPUTZAK, GURE BIZITZAK.** Emakumearen Osasunerako Liburuaren Bostongo Kolektiboak idatzia (The Boston Women's Health Book Collective). Liburu klasikoa, emakumeek idatzitako lan kolektiboa: 60 eta 70 hamarkadako autokontzientzia taldeetako lanean oinarritzen dena eta urteetan gaurkotzen joan dena. (Liburudendetan edota liburutegietan azal ezberdinekin aurkituko duzue, baina liburu bera da)

• **EMAKUMEON GORPUTZA, EMAKUMEON JAKITURIA.** (*Women's Bodies, Women's Wisdom*) Christiane Northrup-ek idatzia. Emakumeon gorputzean oinarrituriko osasun holistikoren entziklopedia.



• **EMAKUMEAK ETA OSASUNA** aldizkaria. (*MYS, Mujeres y Salud*) CAPSek argitaratua, funtsezko erreferentzia eta osasunaren ezagutza feminista eta zientifikoaren gaur eguneko gaietan oinarritua. <http://www.mys.matriz.net>





TRIBIAL FEMINISTA



IKUSKIZUNAK •

Emakumeen Institutuko Irudien Behatokiak moda etxe baten kanpaina erretiratu zuen, bortxaketa baten irudia zelako. Zeinena?

- Levis
- Dolce eta Gabbana
- Inoiz ez da kanpainarik erretiratu



HISTORIA •

Japoniako armadak zertarako errekrutatu zituen 80.000 emakume korear 2.Mundu Gerran?

- Prostituta izateko
- Armadako kide izateko
- Erizain izateko



GEOGRAFIA •

Zein herrialdetan antolatatu ziren Plaza de Mayo emakumeak?

- Bolivian
- Argentinan
- Txilen



ARTEA ETA LITERATURA •

Euskarak ez dauka genero gramatikalik eta horren ondorioz jendeak pentsatzen du ez dela sexista. Egia al da?


- Bai, euskara ez da hizkuntza sexista
- Ez, euskarak ere forma sexistak ditu
- Ezin dugu hitz egin hizkuntza sexistari buruz, baizik eta hizkuntzaren erabilera sexistari buruz



KIROLA •

Gizonek ba al dute igeriketa sinkronizatuan lehia-zerik?

- Bai noski!
- Ez
- Gorpuzkeraren arabera



ZIENTZIA •

Pilula antisorgailuek sexu-transmisiozko gaixotasunetatik babesten dute?

- Bai
- Kasu batzuetan
- Ez, inolaz ere ez

ERANTZUNAK •
Dolce eta Gabbana. Ezin dugu hitz egin hizkuntza sexistari buruz, baizik eta hizkuntzaren erabilera sexistari buruz. Prostituta izateko. Ez, Argentinan. Ez, inolaz ere ez.

ETXELILA

Emakumin Topaleku



Emakumeak kamera atzean ikastaroan burututako film-aren proiektzioa. Eskuman, pelikulako protagonistak.



Zer egin dugu aurten?



Malen Aldalur Azpillaga amatasunari buruz hausnartzen. UXU Emakumeen taldeak antolatuta



Paperaz egindako grabatua ikastaroa 7 emakume en movimientok antolatuta



Erakusketak.



AGENDA

2015' maiatza-ekaina

MAIATZEAN



- **ERAKUSKETA etxelilan:**
EMAKUME SUFRAGISTAK
(Hauteskundeen testuinguruan).
Etxelila-Berdintasun Saila

- **28, eguna/ 19:00/ etxelilan**
EZTABAIDA: *Emakumeak munduko gatazka armatu eta bake prozesuetan – Irantzu Mendia* (EHUko irakaslea).
Etxelila-Berdintasun Saila.

EKAINEAN



- **3an, eguaztena/ 19:00/ etxelilan**
LIBURU AURKEZPENA:

Gure genealogia feministak. Memoria kolektiboan mugimendu feministak bere lekua izan dezan, honen historia biltzen duen liburua. Emagin elkarteak, EHko Bilgune Feminista eta Etxelila-Berdintasun Saila.

- **6an, zapatua/ Egun osoan/ ERMUN**
TOPAKETAK Emakumeen Jabekuntza Eskolen ikasurte amaiera: *Ezin badut dantzarik egin, ez da nire iraultza!* Bizkaiko Emakumeen Jabekuntza Eskolen Sarea.

- **10ean, eguaztena/ 19:00/ etxelilan**
FILM PROIEKZIOA
ETA SOLASALDIA.
Kardala **Juan Bidegain**



ondarrutarra-
ren filmaren
aurkezpena eta
zuzendariarekin sola-
sean. Etxelila-Berdinta-
sun Saila.

- **13an, zapatua/ goizez/ etxelilan**
**GURASOEI GOMENDATU-
TAKO HITZALDIA:** *¿Por qué me atrae, si no me conviene?* **Patricia Melgar eta Marcos Castro.**

- **17, eguaztena/ 19:00/ etxelilan**
HITZALDIA: Aldartetik **Lala Mujika Flores** etorriko da UME ETA GAZTEEN IDENTITATE SEXUALAREN inguruan hitzaldia ematera. UXU Emakumeen taldea

- **28, domeka/ ANIZTASUN SEXUALAREN ALDEKO NAZIOARTEKO BORROKA EGUNA**



EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLAKO IKASTAROAK

- **Maiatzak 29 eta 30**
**AUTODEFENTSA FEMI-
NISTA.** Pili Álvarez Moles

<http://www.ondarroa.eu>

GEUGAZ

GORA EMAKUMEEN BORROKA!